



15km Donostia- Urriak 21, 2012 **Patinatzaileentzako araudi partikularra**

1. Artikulua

Donostiako 15km-ak patinetan korrikalarien araudiaren arabera ([araudi osoa irakurtzeko ,klikatu hemen](#)) ospatuko da, honen ondoren doazen gehigarriekin gainera.

2. Artikulua

Kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa da. Gainontzeko babesgaiak gomendagarriak dira.

3. Artikulua

Dortsala aurrekaldetik eraman behar da, bai zenbakia baita babesleen izena garbi ikusten direlarik.

Txipa orkatilan eraman behar da. Lasterketa amaitu ondoren, **txipa** antolatzaileei **itzuli** egin beharko zaie.

4. Artikulua

Patinatzaileen **irteera** ordua korrikalariena baino 15' aurretik izango da, hau da **9:45**etan, Madrid hiribidean.

5. Artikulua

Sailkatzeko denbora **ordu betekoa** izango da. Lehenengo korrikalariak harrapatutako patinatzaile guztiak ezingo dute lasterketan jarraitu. Anoetara heltzeko ondoan doan bidegorria hartu beharko dute, edota, horren ezean, lasterketaren ibilbidean kontu handiz eta korrikalariei oztopo edo kalterik egin gabe.

Harrapatuak izan diren patinatzaileak ezingo dute Anoetako Estadioan sartu sarrera nagusitik.

6. Artikulua

Donostiako 15 km-ak lasterketa herrikoia bat da, hala ere **gutxieneko oinarri fisiko zein teknikoa** eskatzen du. Ibilbidean zehar antolatzaile eta epaileak egongo dira, behar den gutxieneko teknika maila ez duten patinatzaileak kaleratzeko gai izango direnak, beste partaideei zein beraien buruei kalterik sortu ez dezaten.

Behar beharrezkoa da patinen gainean frenatzen eta taldean moldatzen jakitea. Nahiz eta herrikoia izan, **lasterketa bat da**, ez paseo lasai bat.

7. Artikulua

Guztiz debekatuta dago bizikleten zein beste ibilgailuen aspirazioa aprobetxatzea, baita ere ibilgailu horiei heltzea, sailkapenetik at geratzeko arrazoi dela eta.